

## ABENDUALDIA

### ABENDUALDIKO I. IGANDEA (B)

#### Otoitza

Jaungoiko ahalguztiduna,  
emaiezu zeure fededunei  
beren egintza onekin Kristoren bidera ateratzeko gogoia,  
egunen batez, Haren eskuin aldean jarririk,  
zeruko erreinua irits dezaten.  
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Is 63, 16b-17; 64, 1. 3b-8

*Ai, zeruak urratu eta jaitsiko bazina!*

Isaias Profetaren liburutik

Zu zara Jauna, gure Aita,  
«gure Erosle» duzu izen betidanik.  
Zergatik utzi diguzu, Jauna,  
zeure bideetatik aldegiten?,  
zeure beldurrik ez izateraino  
gure bihotzak gogortzen?  
Itzul zaitetz, zeure zerbitzariengatik,  
zeure ondareko leinuengatik.  
Ai, zeruak urratu eta jaitsiko bazina!,  
zure aurrean mendiak urtuko bailirateke.  
Jaitsi zinen, eta mendiak  
urtu egin ziren zure aurrean.  
Inoiz ez du, ez belarrik aditu, ez begik ikusi,  
Zu beste Jaungoikorik,  
Beragan uste on dutenen alde hori egin duenik.  
Zerori ateratzen zara, zuzen dabiltzanen  
eta zure bideak gogoan dituztenen bila.  
Haserre egon zinen, bai;  
eta guk lur jo genuen;

ken gure erruak eta salbatuko gara.  
 Gu guztiok zikin geunden  
 zapi zikin ziren gure egintza on guztiak.  
 Orbelaren antzera erortzen ginen guztiok;  
 eta gure bekatuek  
 haizeak bezala eramaten gintuzten.  
 Ez zion inork zure izenari dei egiten;  
 ez zen inor Zuri itsasteko ahalegintzen.  
 Zeure aurpegia gorde egin baitzenuen gugandik;  
 eta gure bekatuen menpean utzi gintuzun.  
 Hala ere, Jauna, Zu zara gure Aita;  
 gu, buztina; eta Zu, gure eltzegile:  
 zure eskutako lana gara guztiok.  
 Ez gehiegi haserretu, Jauna;  
 eta ez hartu gogoan betiko gure bekatua.  
 Begira, zeure herri garela guztiok.

ERANTZUN SALMOA: Sal 79, 2a eta 3acd. 15-16. 18-19

**R/. Jainko, birbiztu gaitzazu;  
 salba gaitezen, zure begia lehun ager ezazu.**

Israelgo Artzain, adi ezazu,  
 Kerubin gainean eseri ohi baitzara,  
 egizu dirdai, zure indarrari eragiozu,  
 zatoz eta salba gaitzazu. R/.

Itzul zakizkigu gudari taldeen Jainko,  
 begira zerutik, ikus, mahatsondo honi ager zakizkio:  
 Zure eskuz aldatu duzun aldaska honi,  
 Zuk indartu duzun landareari. R/.

Emaiozu eskua, aukeratu duzun gizonari,  
 Zerorrek indartu duzun gizasemeari.  
 Ez gara Zugandik urrunduko,  
 gauzkazu bizirik eta zure izena dugu deituko. R/.

II. IRAKURGAIA: 1 Ko 1, 3-9

*Jesu Kristo gure Jaunaren agertaldiaren zain gaude.*

San Paulo Apostoluak Korintotarrei

Senideok: Grazia zuei eta bakea gure Aita Jaungoikoarengandik eta Jesu Kristo Jaunarengandik. Jaungoikoari eskerrak ematen ari naiz beti zuengatik: zuei Jesu Kristorengan eman zaizuen Jaungoikoaren graziagatik. Harengan aberastuak izan baitzarete, gauza guztietan: hitz eta jakintza dohain guztietan, horrela, Kristori buruz ematen dugun aitormena sendotua izan da zuengan. Izan ere dohain guztietatik ez duzue batere falta, Jesu Kristo gure Jaunaren agertaldiaren zain zaudetenok. Berak indartuko zaituzte azkenera arte, inork zuen aurka zeresanik izan ez dezan Jesu Kristo gure Jaunaren etorrera egunean. Zintzoa da, bere Seme Jesu Kristo gure Jaunaren elkartera deitu zaituzten Jaungoikoa.

EBANJELIOA: Mk 13, 33-37

**Aleluia:** Sal 84, 8

R/. Aleluia.

V/. Jauna, zure onginahia erakutsiezaguzu,  
zure salbamena emaguzu. R/.

*Zaudete erne,  
ez baitakizue etxe nagusia noiz etorriko den.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik

Aldi hartan, Jesusek honela esan zien bere ikasleei: «Begira: zaudete erne, ez dakizue eta garaia noiz den. Urrutira joan zen gizon baten antzera; bere etxea utzi eta bere morroiei agintea eman zien; bakoitzari bere eginkizuna jarri zion, eta atezainari erne egoteko agindu zion.

Zaudete, beraz, erne; ez baitakizue etxe nagusia noiz etorriko den: ilunabarrean, gauerdian, oilarrak jotzean, edota egunsentian: ustekabeen etorrita, lo aurki ez zaitzaten.

Eta zuei esana, guztiei esaten diet: Zaudete erne!»

### **Oparigaien gainekoa**

Onar, Jauna,  
zure esku zabaletik hartuta dakarzkizugun dohainak;  
iguzu, ogi-ardo hauekin orain eta hemen egiten duguna,  
betiereko salbamenerako izan dakigula.

Jesu Kristo.

Prefazioa: Abendualdikoa.

### **Jaunartze ondorengoa**

On egin diezagula, Jauna,  
orain ospatu dugun sakramentuak;  
beronen bidez irakasten diguzu,  
mundu honetako gauza iheskorren artean gabiltzanoi,  
iraunkorrei jarraitzen eta zerukoak maitatzen.  
Jesu Kristo.